

TOLOSA / 'Bularretik mintzora' irakurzaletasuna euskaraz bultzatzeko proiektu berria

Tolosako ikastetxeetan jarriko dute martxan proiektu pilotoa, eta liburu-disko erakargarri bat prestatu dute.

NEREA URBIZU

Bularretik mintzora liburu-diskoa aurkeztu zuten atzo Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Itziar Zubizarreta ipuin kontalari eta irakasleak. Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura elkarteak irakurzaletasuna sustatzeko kanpainaren aurkezpena egin zuten, esperientzi pilotu bat aurkeztu nahi izan dugu, haur txikien gurasoei eta hezitzaileei zuzenduta, eta momentuz Tolosan bakarrik martxan jarriko duguna. Galtzagorri elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren arteko lankidetzaren fruitu izan da.

0 eta 6 urte bitartekoekin lantzeko da eta irakurzaletasuna landu nahi du, baina modu erakargarrian egin dute, musika eta euskal esaera bitxi, nahiz sehaska kantak besteak beste, batu baitituzte ere, CDan. 0 eta 6 urte bitarteko adin magiko horretan sentimenduak, zentzumenak eta lehenengo hariak osatzen hasten dira: aukeratutako adina ez da kasualitatea, izaera edo pertsonalitatea finkatzen baita.

Haurren beharrei erantzuna

Haurrek jaiotzen direnetik gauza asko behar dituzte modu egokian garatzeko, baina hauek asetzeko haurrek oraindik ez dituzte garatuak trebetasun kognitiboak, ezta hizkuntza bera ere. Behar hauei aurre egiteko helduek altxor baliotsu bat daukate: irakurketa. Horregatik, haur horri irakurketa eman behar zaio, jaten ematen zaion bezala, testuek komunikatzeko balio dute.

Haurrei irakurtzen ematen zaionean garapenean laguntzen du, haurraren maila psikologiko eta afektibo berean komunikatzen ari garelako. Bularretik mintzora esperientzia pilotoak honetan laguntzen du.

Hizkuntzari erreparatuz gero, ingurua erakusteko irakasten bada, erabat formala izango da, eta behar afektiboak beste nolabait adierazi beharko ditu haurrak adinean aurrera: gaztelaniaz edo ingelesez. Izan ere, euskarak galera handia izan du azken urteetan.

Osasunean ere eragina du

Egitasmoa berria da Euskal Herrian, ez da guk sortua, munduko herri askotan eraman da aurrera. Gu saiatu gara horren egokitzapen bat asmatzen Euskal Herrirako. Herrialde Katalanekin eta Kolonbiarekin dute harremana Galtzagorri elkartearen bidez, laguntza eta babesa jasoz. Pausoz-pauso saiatuko gara aurrera ateratzen egitasmo hau.

Literatura eta irakurketa oso garrantzitsua da txikientzat ere, eta osasunean berebiziko garrantzia du ere.

Mailegua haur liburutegian

Bularretik Mintzora liburu-diskoa kanpainaren ekimen nagusienetakoa da. Itziar Zubizarretak zuzendu, Elena Odriozolak ilustratu eta Aurelio Edler-ek musikatu du. Musikak ez du hizkuntza estaltzen, eta batez ere, Gipuzkoako eta Bizkaiko ahozko tradizioan jasotako kantak, jolasak, sehaska kantak, ipuinak eta poemak daude. Aldi berean, kantu eta jolas hauek nola landu behar diren ere azaltzen da: hala, harremana asko lantzen da.

Liburu-diskoa ez da salgai egongo oraindik, baina Errota haur liburutegian liburu-kutxen mailegua eskuratu ahal izango da, eta guztira 30 ale utziko dituzte bertan. Bertan, Galtzagorri elkarteak gomendatzen dituen liburuak daude hartzeko. Informazio gehiago behar izanez gero, webgune bat ere badute: www.galtzagorri.org, hain zuzen.

Bi urteko lana dago egitasmo honen atzean, Zubizarretak adierazi bezala. Urteak beharko dira ikusteko proiektu honen fruituak zein diren, baina orain arteko inpresioa ona izan da. Euskara eta irakurzaletasuna eskutik helduta doaz proiektu honetan.

Egitaraua

Hilaren 18. 18:30ean Juan Kruz Igerabide poetarekin Bularretik mintzora: poesia hizkuntza afektiboaren oinarrian. Haur liburutegian.

Hilaren 19. 18:30ean Juan Karlos Alonso psikologoa; Haur literaturaren eragina haurraren garapenean. Haur liburutegian.

Gurasoentzat. Ikastaroa, Pello Añorga ipuin kontalari eta idazlearekin.
Irakasleentzat. Ikastaroa Itziar Zubizarreta ipuin kontalari eta irakaslearekin.